

HONDARRIBIKO I. AURRESKU TXAPELKETA

- Gipuzkoar erara -

Datorren azaroaren 16ean, larunbata, arratsaldeko 18:30ean Hondarribiako Itxas etxean, **HONDARRIBIKO I. AURRESKU TXAPELKETA NAGUSIA** – Gipuzkoar erara - ospatuko da Ibarla Meaka dantza taldeak eta Hondarribiko Udalak antolatuta eta Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarraren laguntzarekin.

PARTE-HARTZEA

Nahi duten guztiek, gizonezkoek eta emakumezkoek, parte har dezakete ondoko baldintzak betez gero: 15 urte aurten betetzea.

IZENA EMATEA

Izena ematea, GIPUZKOAKO EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRean egin beharko da. (TELEFONOA: 943 289848. E-MAILA: gipuzkoakoedb@gmail.com).

EPEA

Txapelketan izena emateko epea **Azaroaren 6an**, asteazkena, eguerdiko 14:00etan amaituko da.

EPAIMAHAIA

Epaimahaikideak, Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrak izendatuko ditu.

DANTZAK

- Soinu Zaharra: Hiru hauen artean dantzariak aurretik aukeratzen duena:

EHUN DUKAT:

8 – 8 – 8 – 3 – 6 – 2 – 4 – 8 – 8 – 8 – 3 – 6 – 2 – 4 – 5 – 4 – 5 – 4

EHUN TA BIKOA:

4 – 2 – 4 – 6 – 6 – 4 – 4 – 2 – 4 – 6 – 6 – 4 – 6 – 6 – 6 – 6 – 4 – 2 – 4 – 6 – 6 – 4

GRAZIANA:

8 – 8 – 8 – 8 – 6 – 4 – 6 – 4 – 8 – 8 – 4 – 3 – 4 – 4 – 3 – 4 – 3 – 4 – 3 – 4

- Aurkez aurke edo desafioa. Gipuzkoako edozein izan daiteke, dantzariak izena emateko orduan bere jatorria adierazi beharko du.

- Zortzikoa: Interpretazio librekoa izango da eta zortziko baten egitura izan beharko du: 6 konpas dantzatuak, azkeneko 2 konpasak kortea edo itxiera emateko utziz. Lehenengo eta azkeneko korteak libreak izango dira, baina erdikoak honako bi moten artean aukeratu beharko dira: deia edota buelta kortearekin. Doinuak 64 puntu izango ditu, hau da, 8 konpasez osatutako 8 zati.

1go. Txanda: Aurkez Aurke eta Soinu Zaharra.

2. Txanda: Zortzikoa. (Aurreko bi dantzetan puntuaziorik altuena lortu duten 6 dantzariak dantzatuko dute pieza hau).

Txapeldunak kontrapasa dantzatuko du amaieran.

JANZKERA

1.go txandan dantzariak ohiko jantziak hornitua dantzatu beharko dute. 2. txandan, berriz, janzkera librea izango da.

SARIAK

1. saria. 130 euro, txapela eta trofeoa
2. saria. 110 euro eta trofeoa
3. saria. 90 euro

Gainontzeko dantzariak 60 euroko dieta izango dute.

Oharrak:

- Ustekabekorik egonez gero, antolakuntzak beharrezkoak irizten dituen erabakiak hartzeko eskubidea gordetzen du.
- Parte-hartzeak honako oinarri hauen onarpena darama.

Hondarribia, 2019ko Urriaren 10ean.